

Bigarren ataza: informazio bideolana

Ikasleak *Irrati eta telebistako informazioaren teoria eta teknika* asignaturan informazio bideoa zelan egiten den ikasteaz gain, egin ere egin behar du bideolana gai baten inguruan.

Deskribapena: ikasleak bideolan informatiboa burutu behar du, horretarako herritar ororentzako erremintak erabiliz, bai Web 2.0koak, bai eta lokalean baliatzen direnak ere. Bideolana egitea, uste baino errazagoa dela pentsatu behar du ikasleak ataza egin aurrez, hedabide analogikoen aroan oso prozesu konplikatuak eta garestia baitzen. Egun, ordea, edozein herritarrek egin dezake bideo grabazioa eta segundutan YouTube.com edo Eduvlog bezalako guneetan argitaratu.

Helburuak: ikaslea gauza izatea bideolan informatiboaren burutze prozesu osoa egiteko. Bestalde, ikasleak bideolan egiteko teknika baten aldeko apostu egiten du baliabideen arabera, era horretan baliabideak eta aukerak ondo parekatzen eta hautatzen ikasten du. Helburua ere bada izan, besteen bideolanak kritikatzeko eta komentatzeko izaera kritikoa pizteko.

Noiz erabili: pentsatzen dugunean ikasleek ikusentzunezkoak erabiliz kontatu behar dituztela albisteak edo informazioak. Nahi dugunean ikasleak lehen pausoak ematea ikusentzunezkoen teknikaz jabetzearen.

Ekaiak: ikasleak 2-3 minutuko informazio bideolana burutzeko ekai desberdinak erabiltzea aholkatzen da; hau da, argazkiak, bideo sekuentziak, soinuak eta testu fitxategiak.

Gomendioak: irakasleak atazari buruzko informazioa helarazi behar die ikasleei, gida antzeko zerbait burutuz (orri honetan dagoena) eta argiro azalduz zelan egiten den. Bi edo hiru minutuko bideolana egiteko arratsalde bat egin daiteke lanean. 4-5 orduko lana ba batz-beste ematen den denbora ataza hau burutzeko. Horregatik gomendatzen da planifikazioa egitea TiddlyWiki agenda erabiliz.

Ataza nola burutu: gaia librea da baina arlo honen barruan egon behar: hezkuntza esparruko informazio bideoa izan behar da, erreportaiak laburra bailitzan. Bideoak, informatzeaz gain, hezkuntzarako izaera ere eduki behar du: zerbait interesgarria kontatu herritarren gustukoa izateko edota herritarrek ikas dezaten. Ekar ditzagun hona zenbait gai hipotetiko:

- Kalitatea Nafarroako unibertsitateetan
- Flash Video deritzon formatuaren arrakastaz
- D eredia Nafarroan
- Tontxu Campos-ek unibertsitate eta enpresaren arteko erlazioaz egiten du berba
- YouTube.com guneko bideoak nola deskargatu disko gogorrera
- s60 telefonia sistemaren mamiaz
- Ikasleen problemak egoitza nagusietan
- Ingelesa nola ikasi Internet erabiliz
- Web 2.0 aplikaziorik onenak
- Euskal hizkuntza, Europako zaharrena ote?
- Piktoak nortzuk ziren
- Europako kreditu sistema unibertsitateko irakaskuntzan
- Euskaldunak eta georgiarrak, anaiak ote?
- YouTube-ko Remixer erreminta nola erabili

Internet erabil daiteke gaiari buruzko informazioa lortzeko. Gutxienez bi sekuentzia agertu behar dira bideoan (bi elementu edo osagai, gutxienez). Sekuentzia bat elkarrizketa baten bidez burutu ahal da nahi izanez gero. Editatzeko Lives, Cinelerra, Power Director edo YouTube-ko Remixer bezalako erreminta erabil daiteke. Remixer aplikazioa onlinekoa da. Behin bideolana amaitutakoan, ikasleak bideoblogean eskegiko du (Blogger sisteman) irakasleari URL edo helbidea emanaz. YouTube edo Google Video-n ere egon daiteke eskegita bideoa, bertako kodea Blogger sisteman jarriz (norberaren blogean).

Ebaluazioa: ondoko rubrika honen bidez egingo da:

kalifikazioa	gaiaren originaltasuna (hautuaren egokitzapena)	Bideolanaren errealizazioa
A :: 10	ezin hobea	argazkiak, testuak, irudiak, soinua eta bideo-sekuentziak ezin hobeto erabilia
B :: 8	bikain	bikain
C :: 7	oso ona	hagitz ona
D :: 6	ona	ona
E :: 5	nahikoa	nahikoa
FX :: 4	eskasa	eskasa
F :: 2	oso txarra	oso txarra

Irakasleak ikasleek ikaskideen blogetan utzitako komentarioak ere balora ditzake plus bat bezala elkar-eragina sustatzeko.

Atazaren mamia: ikasleak bideolan informatiboa egin behar du, bizpahiru minutuko iraupena duena. Bideolanean gutxienez sekuentzia bi egon behar dira eta gaiaren originaltasuna eta errealizazioa baloratuko dira.

Iraupena: lau asteko epea egongo da ataza burutzeko.